

Bizitzearen Goralpen egunak

Auxe be bada denporearen abiadea! Gabon jaiak arainegun joan jakuzalakoan, Pazko jaietantik atzo goizean urten gendualakoan, argi bristadea lez igaro dan udeak ezarritako baltzaran kolorea galtzeko astirik be barik eta zemendia gainean. Eta zemendia dinoan nak urtearen azkenaldea aiatu gura dau.

Il onen asiera asieran bertan, esangura sakoneko jai bi ospatzen ditu Eleizearren liturjiak: Domu Santuru eta Ildako Guztien eguna, emengo eta leku askotako kristinauen biotzetan esangura bizia daben egunak ditugu eta biak be geroko bizitzeaz diardue. Joan jakuzanen bizitzea, iraupena gogoratzen dogu egun orretan.

Euskaldun zaarrak, kristinautasuna emen sartu baino gizaldiak eta gizaldi mordoak aurreragoak be, errespetu eta begiramen aundia eutsien euren ildakoei. Arzuloetan, kobetan aurkitzen diran obiraketen ondakinak, dolmenak, arrespilak eta ainbat aintxinako ermita inguruak lekuko. Aspaldi zaarretako euskal artzainak euren ildakoentzat, euren ildakoen obietan, enterrulekuetan jasotako monumentuak ditugu dolmenak eta arrespilak. Euren ganaduen ondoren aruntz eta onuntz ebilzalarik be, ildakoentzat leku jakina. Bearbada beste errialde batzuetako, beste kultura batzuetako oiturei jarraituaz egiten ziran monumentuok, baina indar aundiz sartu ziran gure artean be.

Eta geroago, etxe baten inguruan lurrak lantzen asi ziranean, etxeko teilatuean bertan; geroago oraindino auzune

osoaren obigune bakarra egitea, joan ziranen gomutaz alako egun berezietan argiak bertan ixiotuta ipintea. Alakoren baten, kristinautasunaren barriemolleak, misiolariak gure lurretara eldu ziranean, auzoetako abiraguneok berez be batzar leku, auzoaren biotzean esangura aundiko leku zirala eta bertan ermitak jasotea.

Familia bakoitzak parrokian eban sepulturea be geure egunetaraino eldu da. Lekuren batzuetan erdi galdurik egongo da bearbada, baina beste leku batzuetan bizi-bizirik oraindino.

Aitamena guztiok zertarako dakardazan? Il onen atari atarian ditugun liturji jaiok esangura sakonekoak dirala esateko. Bizikeraz aldatu arren be, bizitzea goraldtu, eta muga guztiak zear lagun, adiskide eta senide lez jarraitzea atsegin dogula aitzen emon gurarik. Kristinautasuna sartu aurretik, alde egindakoen bizikera barriari begiramena eutsienak, barriro be alkar aurkituko ziran ustez bizi ziranak, bizitzea goraltzen eben. Bizitza barriaren, biztueraren itxaropenetan bizi gara kristianauok, eta bizitzea goraltzen dogu guk be.

Zemendiaren asierako jaiak pozgariak ditugu benetan. Santutasuna, Kristoren jarraipen leialtasuna goraltzen dau bata, bizitzearen iraupena besteak. Ez da arritzeko be onelako jaiak kristinau biotzetan sendo sustraiturik agertzea. Krisiak krisi eta ilunaldiak ilunaldi, bizitzea goraltzea fedearn arnasa eta itxaropenaren indar-iturri.